



**'Gu ere bertsotan' programan parte hartu duten ehundik gora haurrek ikasturte amaierako bertso jaialdia egingo dute asteartean (maiatzak 19), Baztartxon, 18:30ean hasita.** Bertan, Floreaga Salesiar ikastetxeko eta Xabier Munibe Ikastola ikastetxeko haurren, ikasturte osoan zehar programa horren barruan ikasitakoa taularatzeko aukera izango dute. Jaialdian, LH5, LH6, eta DBH1 mailetakoko haurrek bertsolariarekin eta ikastetxeetako irakasleekin landutako bertsoak taularatuko dituzte. Jaialdia gurasoei zuzenduta badago ere, bertso gogoko duten herritar oro gonbidatuta dago bertara. Sarrera doakoa eta irekia da.

'Gu ere bertsotan' proiektua 2008-2009 ikasturtetik Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarteak lankidetzan aurrera daramaten ekimena da. Bertan bertsolaritzak eskaintzen dituen bitartekoez gain, irudimena, diskurtsoak garatzeko gaitasuna, hizkuntzarekiko harreman ludikoa, elkarrizketarako baliabideak, arrazoiketa kritikoa eta abar luze bat ere lantzen dira. Horretarako Gipuzkoako Bertsozale Elkartetik irakasle bat bideratzen da ikastetxe bakoitzera, ikastetxeko beste irakasle batekin elkarlanean proiektuak aurrera eramateko. Azkoitiko ikastetxeetan Jokin Uranga aritu da proiektuak garatzen, eta ikasturte honetan bi ikastetxeetako ehundik gora gaztetxo izan ditu ikasle; Xabier Munibe ikastetxeko DBH1eko hiru talde eta Floreagako LH5 eta LH6ko lau talde.